

## XEDAPEN OROKORRAK

### OSASUN SAILA

## 2609

*HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: «351/2013 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, 2007., 2008. eta 2009. urteetarako Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen Dekretua aldatzen duena».*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Maiatzaren 21eko 351/2013 Dekretuaren bidez, 2007., 2008. eta 2009. urteetarako Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen dekretua aldatu zen (2013ko maiatzaren 27ko EHAA, 100. zk.). Dekretu horretan aipatutakoen moduko hutsak atzeman direnez, horien zuzenketa egin behar da ondoren:

351/2013 Dekretuaren Eranskinaren bidez, idazketa berria eman zaio 2007., 2008. eta 2009. urteetarako Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen Dekretuko 27. artikuluari (Lanaldi arrunta). Hain zuzen, eranskin horren euskarazko testuan, 2013/2442 (4/3) orrialdean, 4. paragrafoan,

Honako hau dioen tokian:

«- 60 urtetik gorakoak: 1,20»

Hau esan behar du:

«- 60 urtetik gorakoak: 1,25»